



150 soziotik gora ziren astearteko asanblean. Erdian, orain arteko juntako kideak eta Patronatuko buruak.

Jubilatuak lehendakari bila

■ Batzarrean ez zen kandidatorik aurkeztu ■ Otsailaren 26rako beste batzar bat konbokatu dute lehendakaria aukeratzeko ■ Goio Irazusta

JUBILATU Etxeak urteko asanblea egin zuen joan den asteartean. Puntu garrantzitsuenak bi izan ziren: urteko balantzea eta lehendakari berria aukeratzeko. Lehendakaria eta junta bi urtez behin aldatzen dira eta aurten egokitzeko da berritza. Batzarrean 150 lagun inguru bildu ziren. Bazkide eta zuzendaritzaz gain, gonbidatu gisa han izan ziren: Imanol Beroiz Ongintzako burua eta Jose Leon Etxart jerentea.

Lehendakari izateko, orde, aurretik ez zen inor aurkeztu eta asanblean bertan ere ez. Egoera horren aurrean, asanblean erabaki zen otsailaren 26rako beste konbokatua egitea eta lehendakaria aukeratzeko izango du puntu bakarra. Jubilatu Etxeko lehendakaria aukeratzeko

denean, ekipo berria lehendakariak berak osatu behar du.

Balantzea
Urteko balantzeak garbi erakusten du Jubilatu Etxeak zerbateko aktibitatea daukan. 2001ean egun bakarreko 16 eskurtsio antolatu zituen eta beste bi zerbateko egunetakoak. Denera, 1.100 lagun izan dira eskurtsioetan. Bestalde, zerbite batzuk ere eskaintzen ditu Jubilatu Etxeak: tentsioa hartu, azkazalak moztu eta ilea moztu. Gimnasia ere eskaintzen du eta 30 lagun joaten dira sesio bakoitzean.

Igande arratsaldero, berriz,

Goio Irazusta

“Lehendakari eta junta berriak aurreko ekipoaren laguntza osoa izango du”.

Sozio izatea bizi

Irazusta lehendakariak sozioen inplikazioari buruzko zerbateko erreflesio egin zituen. Irazustak jendeari sozio aktiboa izateko eskatu zion, sozio izatea bizitzeko. Jubilatu Etxeak 2.500 bazkide inguru ditu eta oraingo lehendakariaren ustez, joera zabalduena da eskaintzen diren zerbiteak jasotzea, gehiegi kolaboratu gabe. Horretan gelditu beharre-

bailea izaten da Jubilatu Etxean eta hor ere jende asko biltzen da. Horretaz gain, zerbite txapelketa ere antolatzen dira.

an, gauzak antolatzen gehiago inplikatzeko eskatu zuen.

Parkea eta etxea apartatu

Jubilatu Etxeak azken boladan zerbateko arazo dituzte gazte-aren batzuk pikardia dezenteak egiten dizkietelako: gauzak ostu eta abar. Bijilantzia haunditzeak ere kontua ez duela proiektua da Goiz Eguzki parkea bi zati egitea: Jubilatu Etxearen bueltan pareta jarri eta bi lekua elkarrengandik apartatu, hartara arazo horiek ere ebitatzeko.

Sukaldaritza eta mekanika ikastaroak paroen daudenezat

ONGINTZA Patronatuak mekanika eta sukaldaritza ikastaro bana antolatu du langabetuentzat. Mekanika ikastaroa 850 ordukoa da eta teoriko eta praktikoa izango da: motorra konpondu, kaja-kantioa eta trasmisioak konpondu, direkzioa, suspensioa, frenoak eta abar. Ibilgailu arinen mekanika izango da.

Sukaldaritza ikastaroan ere programa zabala da: oinarriko sukaldaritza; barazkiak, arraia, haragia, hegaztiak, ehiza eta abar nola prestatu; postreak; *self-service* eta abar.

Matrikula zabalik dago. INEM-en eman behar da izena (Lasarten). Ikastaroak martxoaren 20an hasi eta azaroan bukatuko dira. Goizeko 08:30etatik 14:30etara, Traspakarren.

‘Borroka Eguna’ gaur

HERNANIKO Gazteok plataformak Borroka Eguna deitu du gaurko Askatasuna eta Segiren ekimenak ilegalizatu izana salatzeko. Bi manifestazio egingo dira: eguerdiko 13:00etan eta iluntzeko 20:00etan. □

PELOTA

Esnal-Elola Garzia-Galardi, gaur

PROFESIONALEN pelota partiduak jokatu dira gaur Hernanin. 22:30etan, Milikua/Oar Arteta. Ondoren, Binakako txapelketako partiduak: Esnal-Elola/Garzia-Galardi. □

SAGARDOTEGIA
IPARRAGIRRE
HERNANIKO SAGARDOA OSINAGA AUZOA 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera zabalik. Larunbat eguerdian enkarguz. Tel. 943 55 03 28

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia beti Bikain...
Eziago poligonoa. Tel. 943 55 00 89
Elkano 12 - Tel. 943 55 31 42
Orkolaga 19 - Tel. 943 33 14 87
20120 HERNANI

Arrigoain jatetxea

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Karta

Santa Barbara 87 (Harrobian)

☎ 943 55 00 97

-Astelehen eta astearte gaueetan itxia-

mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

KixKal
Taberna
naqusia 15
Egunero pintxo aukera ederra. Asteburuetan pintxo beroak ere bai.

GAUR HASIKO DIRA INAUTERIAK HERNANIN



Igandean, karrozek kolorea eta giroa emango diote Hernaniri.

'Los cuatrerros de Etxeberri' taldeari omenaldia, gaur, Inauteriak hasteko ekitaldian

■ Ekitaldia arratsaldeko 15:30etan hasiko da, Gudarien plazan ■ Ikastetxeetako umeak herrian barrena ibiliko dira mozorrotuta.

INAUTERIAK gaur hasiko dira Hernanin. Iaz bezalaxe aurten ere omenaldi batek emango du karnabal hasiera: Los cuatrerros de Etxeberri koadrila omenduko da aurten. Ekitaldia, Gudarien plazan izango da, arratsaldeko 15:30etan hasita.

Ikasleak ere protagonista
Gaurko festaren protagonista nagusia ikasleak izango dira. Eskola guztietako ikasleak

Gudarien plazan bilduko dira bakoitza bere mozorroarekin, eta kaxkoko kaleetan barrena ibiliko dira. Ume txikitxoek, ordea, eskolan geldituko dira eta eskolan bertan egingo du zentro bakoitzak bere festa. Batzuk kanpora ere aterako dira: Meabeko umeak adibidez, Latsunbeberriko frontoian egingo dute beren jaiak. Festari segida emateko 17:00etan Leire eta Itxasok trikitixa joko dute Plaza Berrian. □

Asteburuko programa	
Otsailak 9, larunbata	
8:30	Zezenak Urumean
10:00	Axeri dantza
11:00	Txaranga
12:00	Erraldoi eta buru haundiak
16:30	Disfraz dantza Plaza Berrian
17:30	Bailea Sandiusterrin
19:30	Disfraz festa Tilosetan
0:00	Txaranga
Otsailak 10, igandea	
11:30	Txaranga
12:00	Konpartsak
18:00	Kale Antzerkia
19:30	Trikitixa eta dultzaina

■ WATERPOLOA

Hernani B taldeak lehen garaipena lortu du

EUSKAL Herriko liga deskanstuan, Gipuzkoako liga jokatzeko ari dira Hernaniko taldeak. Hernani B-k lehen garaipena lortu du joan den igandean Eibarko *Ur-baten* kontra, 8-7. □

■ MAHAI TENISA

Mitxelena eta Valverde ondo

ESTATUKO 32 onenek jokatzeko dute Estatuko Top txapelketa. Aitor Mitxelena eta Aitor Valverde hernaniarrek 11 eta 12garren postuetan bukatu dute, azken fasea jokatzeko sailkatuta. Txapelketa honek estatuko txapelketa eta Top 12 txapelketako talde buruak erabakitze balio du. □

■ ERREMONTEA

Altuna II-Etxabek, ezin

■ 40-38 galdu zuten Altuna I-Eizagirrenen kontra.



Ezkerretik: Etxabe-Altuna II eta Altuna I-Eizagirre, atzo.

ETXABE eta Altuna II ezin izan dute sartu Binakako txapelketako finalean. Gero urdinek partiduari buelta eman eta 35-36 jarri ziren Etxabe eta Altuna I. Hortik aurrera, tentsioa eta emozioa publikoan. Azkenean, 38na, eta 40-38 Eizagirre -Altuna Iren alde. □

asmatu ez zuelako. 24-11 ibili ziren gorriak aurretik. Gero urdinek partiduari buelta eman eta 35-36 jarri ziren Etxabe eta Altuna I. Hortik aurrera, tentsioa eta emozioa publikoan. Azkenean, 38na, eta 40-38 Eizagirre -Altuna Iren alde. □

■ HITZ BITAN



53-ko kintoak iaz bazkaldoan, Peña Otaño aurrean. (Arg.Biyok)

✓ 53-KO KINTOAK

Meza eta bazkaria igandean. 53-ko kintoek igande honetan dute urteroko bazkari eguna. Denera, 40 lagun inguru bilduko dira 11:00etan meza izango dute hildako kintoen arimaren alde. Gure artetik joandako kinto guztien senideak gonbidatuta daude mezetara. Mezaondorenean, kintoek hamaiketako egingo dute Txantxangorri elkartearen. Gero, 14:00etan bazkaria, Txantxangorri bertan. □

✓ ETXEBIZITZA

Puig-eko etxeetan apuntatzeko epea zabalik. Puig-en, (Antziolaberrin) Protekzio Ofizialeko 36 etxe egingo dira eta izena emateko epea zabalik dago. Etxeak hernaniarrentzat dira denak eta famili mota ezberdinentzat dira, metrajearen arabera. Izena emateko goizeko 09:00etatik 13:00etara udaletxera jo, hirigintzako ofizinarara: laugarren pisuan dago. Dagoeneko ia 300 lagunetik gora dira inpresok jaso dituztenak.

✓ BEHEMENDIKO AZOKA

Larunbatean azoka. Bihar, larunbata, Behemendiko azoka Hernanin egingo da. Plaza Berrian izango da, goizetik hasi eta bazkalordura arte.

✓ UMEENTZAT TAILERRAK AUZOETAN

Zikuñagan, Floridan eta Antziolan, gaur. Auzo-etako umeentzat tailerrak izango dira gaur Zikuñaga, Florida eta Antziolan, 18:00etatik 20:00etara. Datorren astetik aurrera ere aste honetan izan dute martxa bera izango dute egun eta ordu aldetik.

✓ MUSA

Mus txapelketak tabernetan. Ostiral eta larunbatetan mus txapelketak egiten dira zenbait tabernetan. Gaur Floridako Zingi-zanga jatetxean eta Ereñotzuko Irrintzin izango dira, 22:30etan. Punta puntako sariak jarri dituzte, gainera.

✓ ESKOLARTEKO KIROLA

Asteburuan ez dago eskolarteko kirolik. Asteburu honetan Inauteriak direnez, ez da eskolarteko kirolik izango. Datorren asteburuan hasiko da berriz betiko martxan. □

ZINEA BITERIN

'Bandidos' eta 'Jack Amazonaseko erregea', asteburuan

Bandidos. Gaur, 22:30etan; larunbatean, 19:30etan eta 22:30etan eta igandean 19:30etan. Umeentzat: *Jack Amazonaseko erregea.* Larunbat eta igandean 17:00etan. Umeentzako pelikula, euskeraz.

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 12:00: Sustrai sexologia taldekoekin sexualitate tailerrei buruz 12:20: IHESari buruz Eneko Landaburrekin 20:00: Kutxa Beltza eta Txurian Beltza Rock saioak.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalarri anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
►Gaez: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrak ematen ditut. DBH arte, asignatura guztiak. Interesatuak deitu: **636 170877** Itzalai.

Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko Ordutegia: 8:00etatik-14:30etara. Interesatuak: **943 55 46 17**